



**Udalak 27 milioi
pezeta banatu ditu
festa guztien artean**


Udalak Kultur eta Turismo Ekintzetxearen bidez dirua banatzeko erabiltzen dituen irizpideak direla eta. Antolatzaile hauen ustez, eskatu ohi diren baldintzak ez dira aproposak. Kultur eta Turismo Ekintzetxeako ordezkari Maria Jesus Torresek adierazitakoaren arabera, "festa egitarau batean elementu ugari daude: folklorea, kirola, kontzertuak... eta horien inguruan balorazio bat egiten da. Biztanleria ere kontuan hartzen da, ez baita gauza bera, esaterako, txokolatejana Parte Zaharrean edo San Antonion egitea. Kontua da faktoreak aztertu eta baloratu ondoren, jai guztiek lortutako balorazioa alderatu behar dela dirua proportzionalki banatzeko". Halaber, euren filosofia "auzo bat festa bat" dela azaldu digu, festa txiki guztiek dirulaguntza jaso ezin izana argudiatzeko. "Ezin dira auzo berean lau edo bost festa egin. Gure ustez, Antigua Antigua da, eta ezin da lau etxerekin auzo bat egin", adierazi du. Festa bat baino gehiago duen auzo batean dirulaguntza zein jairi eman erabakitzeko, KTEk tradizioa eta festen indarra kontuan hartzen ditu: "Antiguan sanjuanak duela 60 urtetik egiten badira, guk zergatik aldatu behar dugu horrekiko irizpidea? Grosen Zipotz jaiak daude, Egian Porrontxoak... guk ez dugu hori aldatu".

sortu dira. Hala, Intxaurren udan lau alditan izaten dituzte festak, eta Kaldero Jaun jaiekin gertatzen den bezala, batzuk nahiko errotuta daude. Halaber, azpimarratzekoa da zenbait auzotako ingurune jakinetan festa egunak ugaritu direla. Gero eta gehiago dira festa egunen bat antolatzen duten inguruak, esaterako, San Antonion, Gaiztarron...

Diruaren hotsa

Festetan jendea gustura ibiltzen da, baina tradizio asko ala gutxi izan, jaietan buruhausterik ere izaten da, eta horietako bat, dirua. Sosak behar izaten dira beti zerbait aurrera ateratzeko. Hala, zenbait festa txikiren antolatzaileak kexu dira,

Aurten Udalak 27 milioi pasatxo banatu ditu 31 festen artean. Baina, noski, dirulaguntza horiek ez dira festa antola-



**GAZTETXULO
kioskoan
Eros ezazu!**

GAZTETXULO udako jaietan murgilduta!

- Euskal heavy berria
- Herriz herri parrandan ibiltzeko aholkuak
- Jaiak eta drogak
- Azken orduko albistea: festetan ligatu daiteke
- Jaietan, hamaika ohitura bitxi

- 15-16 Kaiko karmenak
- 20-25 Saguesko jaiak
- 24-31 Zubietako herri jaiak
- 26-31 Groseko saninazioak
- 27-31 Amara Zaharreko jaiak

UZTAILA-ABUZTUA

- 28-Abuztua Loiolako saninazioak

IRAILA

- 3-10-14 Intxaurrendoko jaiak
- 8-16 Aieteko jaiak
- 8-16 Egiako Porrontxoak
- 13-16 Altzako Jolastokietako jaiak
- 14-16 Santa Barbarako jaiak

URRIA 11-14 Martuteneko jaiak

Festetako pertsonaiak

Jai askotan pertsonaiaren bat izaten da protagonista. Hona hemen lau:

Kaldero Jaun

Hego Intxaurren duela zortzi urte hasi ziren ekaina amaieran jaiak antolatzen. Lehenengo bi urteetan izugarritzko eurijesak izan ziren, eta euririk egin ez zezan erregutzeko, santurik ezean, Kaldero Jaun sortu zuten, oinak pertz baten barruan sartuta dituen pertsonaia. Urtero Ametzagainatik ekartzen dute festen hasieran, eta jaiak amaitutakoan pertzan ura badago panpina erre egiten dute. Azken sei urteotan bi aldiz besterik ez dute erre.



Zipotz

Groseko jaien antolatzaileek, garai batean gau eta egun jaien eske aritutako gizona omentzeko sortu zuten Zipotz pertsonaia. Aurten Groseko festa nagusiek 11. urteurrena beteko dute, duela hamarkada bat festen eskaeran tematutako Zipotz goitizenerako bizilagun hura omentzeko garai egokia, beraz. Pertsona horren benetako izena, ordea, ez digute eman nahi izan antolatzaileek. Beste nonbait festa eskean hasiko ote den beldur?

Porrontxo

Donostiako festetako pertsonaiarik ezagunena Egiako Porrontxo da, Porrontxa izeneko neskalaguna, eta bikotearen ondorengoa den "Porrontxito" ahaztu gabe, noski. Garai batean lehiaketa bitxi samarra egiten zen Egiako festetan: auzotarren sudurrak neurtzen ziren luzeena nork zuen jakiteko. Hortik dator Porrontxo izena. Aurten Egiako festek 20. urteurrena beteko dute, eta une egokia izan daiteke berriro sudurrak neurtzen hasteko...



Txanpontxo

Azken urteotan adiskidea sortu zaio Porrontxori Bidebietako festetan: Txanpontxo. "Txanpon" hitzarekin jolas egiten duen izen honek datu historikoa gogorarazi nahi du: garai batean Bidebietak itsasgizonen eta nekazarien arteko diru-trukeetan izandako garrantzia, hain zuzen. Garai bateko diru-mugimendu handi haren lekuko, auzoko baserrietako biren izena: Guardaplata eta Moneda. Sos batzuekin joan beharra dago, beraz, Txanpontxo jaietara.



Auzo bakoitzean festa bakarrari ematen zaio dirulaguntza

tzaileen arazo ekonomikoaren konponbidea. Hala, Intxaurrendoko Kaldero Jaun jaietan 700.000 pezetako laguntza jaso dute, baina hori ez da nahikoa zulerik ez egiteko, eta gainontzeko dirua ferietako

salerosketan lortu behar dute. Gainera, Roberto Otero antolatzaileak azaldu digunez, Udalak gero eta ziurtagiri gehiago eskatzen ditu, eta horrek dena are gehiago korapilatzen du.



Jaiak aurrera egiteko jendearen parte hartzea ere ezinbestekoa da, festa giroan bertan eta baita antolatzaile lanetan ere, noski. Aurten, esaterako, Intxaurrendoko Kaldero Jaunetan eta Groseko Zipotz jaietan pozik daude lanera bildutako jendearekin, batez ere gazteek parte hartu dutelako eta horrek etorkizuna bermatzen duelako. Hala adierazi digute behintzat festa hauetako antolatzaileek. Guztiok ongi pasatzeko, batzuk lan egiteko prest daude. Ez dago gaizki, datorkigun uholde alaiak ikusita, batez ere.